

Emakumea hezkuntzan Gehiengoa bai, baina zertan?

DANI BLANCO

Euskal Herrian betidanik emakumeak lotura estua izan du irakaskuntzarekin. Egun ere egiteko horretan eurak gailentzen dira, baina nagusiki behe etapetan, eta ez ardura postuetan. Horrek zein ondorio du haurraren? Eta gizon eta emakumeen artean berdintasuna lortzeko bidean?

UXUA LARRETXE

UGARIA BEZAIN OPAROA da Euskal Herriko irakasle emakumeen zerrenda. Izan ere, etxeko heziketaz ez ezik, emakumea irakaskuntzaz arduratu izan da oro har. Datuek euskal hezkuntzan egun ere emakumeen presentzia nabaria dela erakusten dute: 2007-2008 ikasturtean, 25.235 emakume aritu ziren irakasle lanetan (%66,5), Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Itxura guztien arabera etorkizunean ere emakumezkoak gailenduko dira, EAEen iaz maisu-maistratza ikasteko izena emandakoen %74,5 emakumezkoak ziren-eta.

Historikoki irakaskuntzaren baitan euskararen eta euskal kulturaren transmisioa izan du egiteko nagusia euskal emakumeak –ikus 8. orriko koadroa–. “Une historiko bakoitzean gizartean

Nekane Idarreta (Langile Ikastola)

“Gure egitekoa ikasgeletan erne egotea da, gazteen artean sentsibilitatea garatzea eta behaketan jasotzen duguna Hezkidetza Batzordean aztertzea”.





JOSU SANTESTEBAN

Amaia Zubieta (Stee-Eilas)

“Neskengan aniztasun gehiago antzematen da, eta suhiltzaileak edo astronautak izan nahi dutenak badaude. Ordea, mutilekin ez da joera bera ikusten euren espektatibetan preso geratzen direlako”.

indarrean zeuden balore kultural esanguratsuenak transmititu izan dituzte, inongo kritikarik eta hausnarketarik egin gabe”, Amaia Zubieta Stee-Eilas sindikatuko Nafarroako Emakumeen Idazkaritzako arduradunak azaldu duenez. Hortaz, esleitutako rola betetzera mugatu izan dira.

Horren ageria izan ez arren, oraindik orain emakume asko dago eginkizun horretara emana. AEK erakundeak 2007an kaleraturiko datuen arabera, urte horretan AEK-ko irakasleen %67a emakumezkoa zen. Horretaz gain, egun euskara normalizatuago dagoen irakaskuntza mailetan (Derri- gorrezko Hezkuntzan eta Batxilergoan) emakumezkoak gehiago dira irakasle lanetan, eta aldiz, euskararen presentzia urriagoa den mailetan (Unibertsitatean eta Lanbide Heziketan) gizonezkoak dira nagusi.

Emakume irakasleak hezitzaile

Emakume irakasleak gehiago direla esan dugu, baina datuek errealitate ezberdina erakusten dute irakaskuntzako etapen arabera, gizonezkoen kopurua nabarmen igotzen baita goi etapetan; aipaturiko lurralde historikoetako hezkuntza ez unibertsitarioan irakasleen %71,4 ziren emakumezkoak (23.080 emakume guztira), eta hezkuntza unibertsitarioan, aldiz, %38,5 besterik ez (2.155 ema-

kume). Datu horrek hausnarketarako abagunea eskaintzen du.

“Hor prestigio eta botere arazo bat dago, gaitasun arazo bat baino gehiago”, Nerea Elias Farapi elkarte antropologikoko kidearen arabera. Izan ere, Haur Hezkuntzan emakumeen presentzia oso nabaria da (%92), eta hain justu sozialki prestigio gutxien duen irakaskuntza maila da. Aldiz, etapak aurrera doazen heinean, gizonezkoen presentzia areagotzen da.

Zergatik ematen da joera hori eta nola alda daiteke? Nerea Eliasek argi du gizarteak berak eragiten duen egoera dela: “Sarri emakumearen ibilbide profesionalean muga bat agertzen da aurrera egitea galarazten diona. Muga hori zenbaitetan emakumeak berak jartzen du, baina maiz kanpotik dator”. Alabaina, bere ustez lanpostu bera emakumeak edo gizonezkoak burutu, gorespena ez da bera. “Haur Hezkuntzan, esaterako, gizonezko bat lanean ikusten dugunean emakumeari egokitzen ez


diogun balio erantsia esleitzen diogu hari, gizona izate hutsagatik. Emakumearen kasuan berriz, naturalki irteten zaion zerbait dela dirudi, hezkuntza- ren eta zaintzaren ardurak egokituko balitzaizkio bezala inongo ahaleginik egin beharrik gabe”.

Emakume eta gizon irakasleen ezberdintasun horiek arrastoa uzten dute haurra- rengan. Izan ere, irakaskuntzako behe etapetan irakaslea

hezitzaile lanarekin lotzen da, eta hortaz, badirudi hori dela emakumearen egitekoa. Aldiz, unibertsitatean gizonezkoa nagusi den neurrian, jakituriaren transmisioa berari dagokiola barnera lezake haurrak. Horretaz gain, eta salbuespenak salbuespen, zuzendaria, lehendakaria edo ikuskaria gizonezkoa da nagusiki, eta, jangelako edo autobuseko zaintzailea emakumea.

Dena den, Amaia Zubietaren iritziz egoera hori aldatzen ari da: “Emakumeek eremu

Emakumezko irakasleak (2007-2008)



Nerea Elias (Farapi)

“Maisu-maistra karreraren lantzen diren edukiak funtsezkoak iruditzen zaizkit eta zentzu horretan ez dakit zenbateraino irteten diren etorkizuneko irakasleak berdintasuna lantzeko prestatuak”.

gehiagotan dihardute lanean, eta orain arte gizonezkoenak izan diren lanpostu batzuetan –ingeniaritza edo lanbide heziketan, kasu– gero eta emakume gehiago daude”. Eskoletako zuzendaritza karguan ere emakumeen presentzia areagotzen ari omen da; tranpa bat ikusten du nolanahi ere joera horren atzean: “Egun ez du inork eskolako zuzendari izan nahi, ez dauka-eta prestigio berezirik, eta alde ekonomikoa pizgarria den arren, ez da beste munduko ezer”. Beraz, gizonezkoek ez dute lanpostu hori nahi, eta egoera horretan emakumeek hartzen dute beharraren ardura, “moralki behartuak sentitzen direlako”. Hortaz, zuzendaritza lanpostua desprestigiatzen joan ahala hasi dira emakumezkoak agertzen. Halere, zuzendaritzan emakumea egoteak ez duela berak agintzen duenik esan nahi argi du Zubietak.

Beraz, emakumeak gizonezkoenak izan diren lan eremuetan dabilta zenbait kasutan, baina ematen al da kontrako prozesurik? “Ez dute orain arte emakumeenak izan diren lanpostuetara jauzi egin, gizonezko garbitzaileak edo zaintzaileak apenas ikusten dira”. Horren isla da egun irakaskuntzako behe etapetan oso gizonezko irakasle gutxi izatea. Egoera hori aldatu nahi izatekotan, gizarte eredu aldatzetik hasi beharko litzateke, eskola gizartearen beraren isla baita. Ikasle txikienekin gizonezkoak aritzea lagungarri izan daiteke haurren pertzepzioa aldatzeko; izan ere, txikitatik emakumeek zein gizonezkoek egiteko berak dituztela barneratuko lukete inkontzienteki.

Neskak erizain eta mutilak mediku?

Egungo errealitatearekin, ordea, emakumegizon irakasleen banaketa hori eredu bilakatzen da haurrentzat, eta hortaz, euren etorkizuneko lan espektatibak eredu horietara bidera daitezke; hots, neskek irakasle, erizain edo ile-apaintzaile izatera, adibidez, eta mutilek futbol jokalaria, arkitekto, mediku edo abokatu. “Neskegan aniztasun gehiago antzematen da eta, esaterako, suhiltzaileak edo astronautak izan nahi dutenak badaude. Ordea, mutilekin ez da

DANI BLANCO



joera bera ikusten euren espektatibetan preso geratzen direlako, eta ez baitu inork ile-apaintzaile izan nahi, nesken egitekoa dela pentsatzeaz gain, prestigiorik ez duelako”. Prestigioa, elkarrizketatuek behin eta berriro mahai gaineratu duten kontua da. Beraz, ondoriozta liteke mutilak emakumeen lanpostu horietara hurrera daitezen, horiei prestigioa ematek hasi behar dela lanean, batez ere Haur Hezkuntzan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzan. “Etap horietan haurrek emozioak adierazten, enpatia lantzen eta abar ikasten dute, eta hori bizitzan ezin garrantzitsuagoa da”, Zubietak gogorarazi duenez. Emozioen lanketa eta alderdi soziala maisu-maistra karrerako curriculumean gehiago baloratu beharko lirateke, eta ondoren baita eskolatan eta gizartearen ere, “gizarteak egiten ez duena ezin baitzaio eskolari eskatu”.

Zein da eskolaren, eta horrenbestez, irakasleen egitekoa egoera iraultzeko orduan? “Neska edo mutila izate hutsagatik ez direla mugak sortzen erakutsi behar diete eskolan hurrei, nahi dutena izateko aske direla”. Eta horretarako, ez da nahikoa eskola mistoa izatea, hezitzailea ere izan behar du. Farapiko Nerea Eliasek uste du eskolatan alderdi ezberdinak landu behar direla; hala nola, testuliburuetakako edukiak, hizkuntza, adibideak eta espazioaren banaketa.

Berdintasuna ikasgeletan landuz

Norabide horretan azken urteetan saiakera asko egin dira, berdintasuna sustatu asmoz ikasgeletan programa jakinak aplikatuz.

“Andereño”en historia eta ondarea

Euskal Herrian emakumeak hezkuntzarekin lotura estua izan du betidanik. XX. mendean —Gerra Zibila bitarte eta ondoren—, lotura horrek eredu burgesari erantzuten zion. Industria iraultzak jazo zirenean, emakumeari birsorkuntza biologikoa-ren eta kulturalaren —kultur edukien transmisioa— funtzioak esleitu zitzaizkion. Generoaren diskurtso hori Europako beste edozein herrialdetan aurki zitekeen arren, Euskal Herriaren kasuan bazegoen berezitasunik: XX. mendean ez zen antze-man nazionalismotik kanpo euskararen irakaskuntzarekin eta ikaskuntzarekin loturiko praktikarik. Bestalde, garaiko emakumeen jarduna egoera politikoak baldintzatzen zuen, eta hortaz, XX. mendearen hastapenetan, euskal emakumeak birsorkuntza kulturala gauzatzeko estatu eskola sistemarik ez zuenez, 1922an, Bilbon, Emakume Abertzale Batza (EAB) sortu zuten. Gizarte mugimendu horrek emakumeari ongi egitearekin loturiko eginkizunez gain, euskara irakasteko ardura esleitu zion. Julene Azepeitia nabarmendu zen talde horren baitan. Ikastolen mugimendua sortu zenean, euskarazko idatzizko testuak behar ziren, eta emakume horiek horretarako ere idatzi behar izan zuten.

Euskal eskolak une horretan euren hastapenetan zeuden; garaiko agerpenak Bizkaiko auzo eskolak (20ko hamarkadatik aurrera) eta Errepublikara garaiko Eusko Ikastola Batza izan ziren. Gerra Zibilaren ostean, euskal eskolaren lehen esperientzia Donostiako Alde Zaharrean Elbira Zipitriak sortu zuen eskola da. Alabaina, 60ko hamarkadatik aurrera eratu zen ikastolen mugimendua izan zen agerpenik indartsuena eta esanguratsuen. Denborarekin, irakaskuntza prestigioa hartzen joan zen eta gizonezkoak sartzen hasi ziren hezkuntza munduan.

Horren adibide dugu Hernaniko (Gipuzkoa) Langile Ikastola. Bertako irakasle Nekane Idarretak azaldu duenez, DBHko ikasleen artean Hezkidetza egitasmoa aplikatzen ari dira. Programa zehatz bat eduki ez arren, duela zortzi urtetik hona berdintasunera bideraturiko hainbat alderdi jorratu dituzte, denak ere helmuga berera zuzenduak: este-reotipoak eta eredu femenino eta maskulino tradizionalak eta zaharkituak baztertuz, neska eta mutilentzat baliagarria izango den pertsona eredu bultzatzea. Horretarako, gizon eta emakume irakasleez osaturiko Hezkidetza batzordea osatu zuten ikastolan.

“Gure egitekoa ikasgeletan erne egotea da, gazteen artean sentsibilitatea garatzea eta behaketaren bitartez jasotzen duguna Hezkidetza batzordean aztertzea”. Ildo horretatik, ahalegin berezia egiten dute hizkuntzaren erabileran —hizkuntza sexista ekidinez—, ikasgeletan adibideak jartzerakoan —emakumeen adibideak jarritz eta alor jakin batzuekin lotzea saihestuz— eta eduki egokiak hautatzerakoan —berdintasunera zuzenduz—. Ikasgeletatik kanpo ere berdintasuna lortzeko saiakerak

Eskoletan berdintasunaren inguruko mezua helarazten bazaie ere, eskolatik atera eta kontrako mezuekin topo egiten badute, haurrak desorekatu egiten dira, eskolan kontaturikoa egia ez dela ohartzen baitira

izan du bere isla; nesken zaletasunak sustatu nahi izan dituzte horiei ikastolan leku eginez. Esaterako, neska nerabeek bankuetan jesarri eta hitz egitea gustuko dutela jakinik, ikastola-ren barrualdean zein kanpoaldean hitz egiteko txokoak sortu dituzte; horren bidez, nesken zaletasunak mutilenak bezain baikorrak direla —futboleko jolastea, kasu—, eta horrenbestez horiei ere eskolan espazio bat eskaini behar zaiela agertu nahi izan dute.

Ikasleen erantzunaz galdetuta, Idarretak dio ez direla kontziente ikastolan berdintasunaren inguruan neurri zehatz batzuk hartzen ari direnik; “mezua helarazten diezunean jaso egiten dute, mezu hori zergatik igorri diozun galdetu gabe”. Dena den, euren ahaleginak fruituak eman dituela argi du, “gurasoek euren seme-alabengan aldaketa batzuk nabaritu dituzte”.

Irakaskuntza, berdintasuna lortzeko eragile garrantzitsua

Dudarik ez dago urte hauetan guztietan tes-tuinguruarekin bat irakaskuntza izugarri aldatu dela, bai eta irakasleen jarduna ere. Aldatu ez dena irakaskuntzak pertsonaren formazio integralean duen garrantzia da. “Irakaskuntzaren bidez etorkizuneko gizon eta emakumeak hezten dira”, Eliasek gogoratu duenez. Horren ildora, kritikoa ageri da egungo irakaskuntza ereduarekin. “Maisu-maistra karreran landu beharko lirakekeen edukiak funtsezkoak iruditzen zaizkit, eta zentzu horretan ez dakit zenbateraino irte-ten diren etorkizuneko irakasleak presta-tuak”. Irakasleek haurraren duten eragi-naz ez ezik, euren eguneroko praktikan beste eredu batzuk txertatzeko duten auke-rez jakitun izan beharko lirakekeela uste du; hala nola, berdintasunerako bidean. “Egune-roko praktika profesionalen mundua ikus-teko beste begirada bat gara dezakete”. Eta hori, Farapi elkarteak kidearen iritziz, haur hezkuntzatik landu behar da, “pertsonak txi-kitatik hezten baitira”.

Berdintasunaren gaia maisu-maistra ikas-keketan lantzeke dagoen ikasgaia dela ere



Irakaskuntzako behe etapetan irakaslea hezitzaile lanarekin lotzen da, eta hortaz, badirudi hori dela emakumearen egitekoa. Aldiz, unibertsitatean gizonezkoa nagusi den neurrian, jakituriaren transmisioa berari dagokiola barnera lezake haurrak.

argi du Amaia Zubieta Stee-Eilas sindikatu-ko kideak: “Agian emakume irakasle sentzibilizaturen bat dago eta haren eskutik landuko dute ikasleek gaia, baina zeharka, ez baitago curriculumean barneraturik”. Sindikatutik gabezia horri aurre egiteko galdegiten dute, bai hasierako formazioan, bai formazio iraunkorrean. Horretarako, ordea, kanpainenetan dirua xahutu beharrean giza baliabide eta baliabide ekonomikoak bermatu behar direla dio. Karreran eztabaida guneak sortzeari garrantzitsu deritzo eskoletan berdintasuna nola sustatu aztertzeke.

Halaber, Idarreta irakaslearen aburuz, eskolek ezin dute egoera eurak soilik irauli:

“Aldagai askok eragiten dute berdintasun eza gizartean, eta horrenbestez, horiek denak jorratu behar dira”. Telebista, iragarriak, zinema, etxeko egoera... Horiek denek dute zeresan handia auzian, eta nahiz eta eskoletan gizon zein emakumeen arteko berdintasunaren inguruko mezua helarazi, eskolatik atera eta euren inguruan kontrako mezuekin topo egiten badute, haurrak desorekatu egiten dira, eskolan kontaturikoa egia ez dela ohartzen baitira. Hori saihestu asmoz, eskolak eta gurasoek konplizitatea lortzea —norabide horretan elkarturik lan eginez— pauso garrantzitsua izan daiteke ez bairik gabe. ■



EIBAR

Azaroaren 6tik 15era, Unzaga plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

*Bizi
irakurriz!*